

Euskal Autonomia Erkidegoko esportazioek %7,5eko hazkundera izan dute 2005eko hirugarren hiruhilekoan

Inportazioek %16,4ko hazkundera izan dute aldi berean

EUSTATEk emandako datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko **esportazioek** %7,5eko hazkunde nominala izan dute 2005eko hirugarren hiruhilekoan. Esportazioak 3.321,4 milioi eurokoak izan dira, aurreko urtean 3.088,7 milioi eurokoak izanik. Hirugarren hiruhileko honetan esportazioek izan duten hazkundearen ondorioz lehenengo bederatzi hilabeteetako tasa pilatua %3,7ra igo da, baina lehenengo sei hilekoko tasa pilatua ez zen %1,9 baino handiagoa izan.

Inportazioak ere hazi dira urteko hirugarren hiruhileko honetan, hain zuzen %16,4 hazi dira eta horrela 3.584,4 milioi eurora iritsi dira. Inportazio ez-energetikoak bakarrik kontuan hartuta, hauek bilakaera askoz moderatuagoa izan dute (%1,5ekoa) uztailetik irailera. Inportazioen urteko lehenengo bederatzi hilabeteetako pilatua %18,7 hazi da aurreko urteko aldi beraren aldean, eta inportazio ez-energetikoena %8,5 hazi da.

Euskal Autonomia Erkidegoko kanpo-merkataritzaren bilakaera. 2004-2005eko hirugarren hiruhilekoa. Mila eurotan.

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Uztaila-iraila		Δ %	Uztaila-iraila		Δ %
	2004	2005		2004	2005	
EUSKAL AE						
GUZTIRA	3.088.723	3.321.442	7,5	3.079.282	3.584.426	16,4
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	193.285	204.719	5,9	776.372	1.247.970	60,7
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	2.895.438	3.116.723	7,6	2.302.911	2.336.456	1,5
ARABA						
GUZTIRA	877.909	922.523	5,1	557.186	610.798	9,6
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	1.439	1.176	-18,3	5.846	11.104	89,9
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	876.470	921.347	5,1	551.340	599.694	8,8
BIZKAIA						
GUZTIRA	1.178.446	1.239.786	5,2	1.816.468	2.231.254	22,8
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	186.405	198.613	6,5	759.109	1.226.549	61,6
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	992.041	1.041.173	5,0	1.057.359	1.004.706	-5,0
GIPUZKOA						
GUZTIRA	1.032.368	1.159.133	12,3	705.628	742.374	5,2
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	5.441	4.930	-9,4	11.417	10.317	-9,6
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.026.927	1.154.203	12,4	694.212	732.057	5,5

Iturria: Eustat

Hirugarren hiruhilekoko esportazioek eta inportazioek 263 milioi euroko **defizita** izan dute merkataritzan eta, ondorioz, esportazioek inportazioen gainean duten estaldura-tasa %92,7ra jaitsi da. Baina inportatu eta esportatu diren produktu energetikoak alde batera utzita, merkataritzako saldo ez-energetikoak 780,3 milioiko soberakina izan du (2004. urteko hirugarren hiruhilekoan baino 187,8 milioi gehiagorekin). Inportazio ez-energetikoen aldean, esportazio ez-energetikoen estaldura-tasa 2004ko hirugarren hiruhilekoko %125,7tik aurtengo %133,4ra igaro da.

Europako Batasunerako esportazioak %6,8 hazi dira 2004. urteko hirugarren hiruhilekoko kopuruarekin erkatuta. Urtetik urterako bolumena eta hazkundera aintzat hartuta, esportazio horien artean Frantziarakoak (%5,3), Italiarakoak (%11,8) eta Erresuma Baturakoak (%21,6) azpimarratu behar dira; halaber, Alemaniarako esportazioak jaitsi egin dira (%-3,8). AEBetarako (%29,8) eta Mexikorako (%23,0) esportazioak suspertu egin dira, baina Japoniarakoak jaitsi egin dira (%-28,3).

Europako Batasunetik datozen inportazioak %0,8 gehitu dira, eta produktu energetikoen inportazioak (Errusia eta Iranetik datozenak batez ere) %60 gehitu dira.

Esportazioetan *Ekipamenduko Ondasunen (Material elektrikoa eta Garraiorako materiala)* **muga-multzoa** izan da garrantzitsuen; multzo honek, guztira, urtetik urterako %2,1eko gehikuntza izan du hirugarren hiruhilekoan. *Metalek eta horien manufacturek* %10,1 gehitu dituzte kanporako salmentak; halaber, *Kautxuaren eta plastikoaren* esportazioek ere urtetik urterako %55,7ko hazkundera izan dute.


Produktu mineralen eta energetikoen inportazioek hazkunde handia izan dute, %60,7koa; bestalde, *Ekipamenduko ondasunen* (%1,2) eta *Metalen eta horien manufacturen* (%-4,4) erosketek aldaketa askoz moderatuagoak izan dituzte.

Esportazioen gehikuntzarik handiena **Gipuzkoan** eman da. Lurralde horretan, esportazioak %12,3 hazi dira hirugarren hiruhilekoan eta 2005eko lehenengo bederatzi hilabeteetan %14,4. Gipuzkoako inportazioak %5,2 hazi dira 2005eko hirugarren hiruhilekoan; kapitulurik nabarmenena *Ekipamenduko ondasunena* izan da %6,7ko gehikuntzarekin.

Bizkaiko esportazioak %5,2 gehitu dira urteko hirugarren hiruhilekoan, baina horiek urteko lehenengo bederatzi hilabeteetan izan duten bilakaera negatiboa izan da (%-3,0). Inportazioek Bizkaian izan dute gehikuntzarik handiena (%22,8koa), *Produktu mineralen eta energetikoen* hazkundearen ondorioz (%61,6koa 2005eko hirugarren hiruhilekoan). Produktu-ez energetikoen inportazioak, alabaina, %5,0 jaitsi dira.

Arabako uztail, abuztu eta iraileko esportazioak %5,1 hazi ziren 2004ko hilabete berdinekin erkatuta, baina bederatzi hilabeteetako balantzeak bilakaera neurrizkoagoa izan du, %0,8koa. Lurralde honetako hiruhilabeteko inportazioak %9,6 gehitu dira, batez ere *Ekipamenduko ondasunenak* (%15,2).

Euskal Autonomia Erkidegoko kanpo-merkataritza. (Joera)



Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Patxi Garrido

Tel:+34-945-01 75 13 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/spanish/indice.asp